

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

LEZOKO UDALA

*Kontratazio mahai iraunkorreko kideen izendapen aldaketa.*

2023ko irailaren 19ko alkatearen D23/1074 dekretuaren bidez kontratazio mahai iraunkorra osatu zen eta bertako kideak izendatu ziren, alkatearen eskumenekoak diren espedienteetarako (baita Tokiko Gobernu Batzarrean delegatutako espedienteetarako ere). Dekretu hori 2023ko azaroaren 27ko alkatearen D23/1391 dekretuaren bidez zuzendua izan zen, mahai-kideak diren 1. titularrak eta 2. titularraren ordezkoen izendapenaren erredakzioan akatsa zegoelako.

Udalbatzarrek, bere aldetik, 2023ko azaroaren 29an egin zuen bilkuran, besteak beste, bere eskumenekoak diren espedienteetan kontratazio mahai iraunkorra eta bere osaera izendatzeko erabakia hartu zuen.

Udaleko langileetan izandako aldaketan ondorioz, kontratazio mahai iraunkorraren osaera aldatu beharra dago, izendatuta dauden kideetako batzuk dagoeneko ez direlako udal langile.

Horiek horrela, 2026/03/26ko D26/0377 zenbakidun alkate dekretuz, erabaki da:

*Bat:* Alkatearen eskumenekoak diren espedienteetarako (baita Tokiko Gobernu Batzarrean delegatuta dauden espedienteetarako ere) kontratazio mahai iraunkorraren egitura eguneratzea, eta honako osaera onartzea:

Lehendakaria:

— Titularra: Eneritz Arruti Osanbela, lehenengo alkateordea; ordezkoa: Iker Salaberria Urkizu, bigarren alkateordea.

Mahaikideak:

— 1. titularra: Lezoko Udaleko idazkaria; ordezkoa: Lezoko Udaleko barne antolaketako eta pertsonaleko arduraduna.

— 2. titularra: Lezoko Udaleko kontuhartzailea; ordezkoa: Lezoko Udaleko diruzaina.

— 3. titularra: Lezoko Udaleko Hirigintzako Saileko arduraduna; ordezkoa: Lezoko Udaleko arkitekto teknikoa.

— 4. titularra: Lezoko Udaleko administrazio orokorreko teknikaria; ordezkoa: Lezoko Udaleko Gizarte Zerbitzuetako arduraduna.

Idazkaria:

— Titularra: pertsonaleko administraria; ordezkoa: hirigintza administraria.

*Bi:* Izendapen aldaketaren berri ematea kontratatzailearen profilean eta Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN.

Lezo, 2026ko martxoaren 31.—Mikel Arruti Salaberria, alkatea. (2243)

AYUNTAMIENTO DE LEZO

*Cambio de nombramiento de los/as miembros/as de la mesa de contratación permanente.*

Mediante el decreto de alcaldía D23/1074 de 19 de septiembre de 2023 se constituyó la mesa de contratación permanente y se nombraron los/as miembros/as de la misma para los expedientes de competencia del alcalde (así como para los expedientes delegados en la Junta de Gobierno Local). Ese decreto fue corregido por decreto del alcalde D23/1391 de 27 de noviembre de 2023, debido a un error en la redacción del nombramiento del titular 1 y del suplente del titular 2.

Por su parte, el Pleno del Ayuntamiento, en sesión celebrada el día 29 de noviembre de 2023, adoptó, entre otros, el acuerdo de designar la mesa de contratación permanente y su composición en los expedientes de su competencia.

Como consecuencia de los cambios experimentados en el personal del Ayuntamiento, es necesario renovar la composición de la mesa de contratación permanente, dado que algunos/as miembros/as de la misma ya no forman parte del personal del Ayuntamiento.

En su vista, mediante decreto de alcaldía D26/0377 del 26/03/2026, se resuelve:

*Primero:* Actualizar la estructura de la Mesa Permanente de Contratación para los expedientes de competencia del Alcalde (incluidos los que estén delegados en la Junta de Gobierno Local), aprobando la siguiente composición:

Presidente/a:

— Titular: Eneritz Arruti Osanbela, primera teniente de alcalde; suplente: Iker Salaberria Urkizu, segundo teniente de alcalde.

Vocales:

— 1. titular: Secretaria del Ayuntamiento de Lezo; suplente: Responsable de organización interna y personal del Ayuntamiento de Lezo.

— 2. titular: Interventora del Ayuntamiento de Lezo; suplente: Tesorera del Ayuntamiento de Lezo.

— 3. titular: Responsable del área de Urbanismo del Ayuntamiento de Lezo; suplente: arquitecta técnica del Ayuntamiento de Lezo.

— 4. titular: Técnica de administración general del Ayuntamiento de Lezo; suplente: Responsable de Servicios Sociales del Ayuntamiento de Lezo.

Secretario/a:

— Titular: administrativa de personal; suplente: administrativa de urbanismo.

*Segundo:* Notificar el cambio de nombramiento en el perfil de contratante y en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

Lezo, a 31 de marzo de 2026.—El alcalde, Mikel Arruti Salaberria. (2243)